# basque-book dokumentu-klasea*

Edorta Ibarra
gautegiz@yahoo.es

2014ko urtarrilaren 25a

**Laburpena**

LaTeX-eko book dokumentu-klasetik eratorritako klasea da hau. Liburumotako dokumentuak euskaraz idaztean gertatzen diren arazo gramatikalak eta numerazio-arazoak konpontzen dituzte hedapenek. Klase hau oso baliagarria da liburuak, doktorego-tesiak, etab. euskaraz idazteko.

## Aurkibidea

**1. Euskara eta LaTeX** **1**
1.1. Sarrera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 1
1.2. basque-book dokomentu-klasea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 1

**2. Dokumentu-klasea nola deitu** **2**

**3. Eskerrak** **2**

**Bibliografia** **2**

**A. Eranskinak** **2**
A.1. Lizentzia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 2
A.2. Bertsioen historia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 2
A.3. Inplementazioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 3

# 1. Euskara eta LaTeX

## 1.1. Sarrera

Oro har, ingelesarekin eta inglesaren antzeko hizkuntzekin lan egiteko dago LaTeX diseinatuta. Euskarak ez du ingelesaren antzeko hizkuntzen egiturarik, eta ezta numerazio-araurik ere. Arrazoi horiek direla-bide, gramatikalki zuzenak diren euskarazko dokumentuak LaTeX-ekin idaztea ez da beti erraza izaten.

*Fitxategi honek (basque-book.dtx) 1.24. bertsioa du. Azken aldiz errebisatua: 2014-01-25.

Aipatutako arazo horiek aski ezagunak dira LaTeX-erabiltzaile euskaldunen artean. Adituak ez diren LaTeX-erabiltzaile euskaldun gehientsuenek ez dute beraien kabuz dokumentu-klaseak berdefinitzeko gaitasunik; [1] erreferentzian aipatzen den bezala, LaTeX-eko dokumentu klaseak euskararako berdefinitzea da arazo horri soluzioa emateko aukeretako bat.

### 1.2. basque-book dokomentu-klasea

LaTeX-eko klase arruntenetakoa eta erabilienetakoa da `book` dokumentu-klasea. Alde horretatik, `basque-book` izeneko klase eratorria eskeintzen da. Klase horri esker, gramatika aldetik zuzenak diren euskarazko liburuak idatz daitezke, eta dokumentu-klasearen kodean zuzenketak edota aldaketak egitea ez da beharrezkoa. Klase hori oso baliagarria da liburuak, doktorego-tesiak, etab. euskaraz idazteko.

## 2. Dokumentu-klasea nola deitu

`\usepackage` komandoa erabiliz deitzen da `basque-book` dokumentu-klasea:
`\documentclass[<options>]{basque-book}`.

`book` dokumentu-klasearen aukera berdinak eskaintzen ditu `basque-book` klaseak.

`basque-book` klaseak funtzionatu ahal izateko, beharrezkoa da `basque-date` paketea erabiltzea. Euskaltzaindiaren gomendioak jarraituz uneko data inprimatzen du `basque-date` paketeak. CTANen dago eskuragai aipatutako paketea[1].

Bateraezintasun-arazoak direla-eta, ez da gomendagarria `babel` paketea eta `basque-book` dokumentu-klasea batera erabiltzea (dokumentazioaren ingelesezko bertsioan daude xehetasun teknikoak).

## 3. Eskerrak

Jose Ramon Etxebarriari eskerrak eman nahi dizkiot, `basque-book` dokumentu-klasea probatzeagatik eta hura hobetzeko gomendioak emateagatik.

## Bibliografia

[1] J. Arias, J. Lazaro, J. M. Aguirregabiria, "Basque: A Case Study in Generalizing LaTeX Language Support," *International Conference on TeX, XML and Digital Typography.* pp. 27-33, 2004.

[1] http://ctan.org/tex-archive/macros/latex/contrib/basque-date

# A. Eranskinak

## A.1. Lizentzia

Copyright 2012-2014 Edorta Ibarra.

CTAN fitxategietan banatutako LaTeX proiektuko lizentzia publikoaren terminoetan birbanatu edota alda daiteke programa hau:

macros/latex/basee/lppl.txe; bai lizentziaren 1.2. bertsioaren terminoetan, edota ondorengo edozein bertsioren terminoetan.

## A.2. Bertsioen historia

- **v1.00. bertsioa (2012/05/03).** Garapenerako bertsio ez-publikoa.
- **v1.05. bertsioa (2012/05/22).** Lehenengo bertsio publikoa. Azkenengo bertsioaren ezaugarri gehientsuenak ditu bertsio horrek.
- **v1.20. bertsioa (2012/07/06).** Bigarren bertsio publikoa.
  (a) Irudien eta taulen oinak berdefinitu dira dokumentua irakurtzeko errazagoa izan dadin.
  (b) Programazio-errore txiki bat konpondu da (`\RequirePackage` komando bat faltan zegoen).
  (c) Zenbait aldaketa txiki egin dira dokumentazioan.
- **v1.24. bertsioa (2014/01/25).** Hirugarren bertsio publikoa.
  (a) Euskarazko dokumentazioa gehitu da `.dtx` fitxategian.
  (b) Ekuazioen numerazioarekin erlazionatutako errore bat arazi da dokumentu-klasean.

## A.3. Inplementazioa

Ingelesezko dokumentazioan daude irakurgai dokumentu-klasearen inplementazioari buruzko xehetasun teknikoak.